



Ajangizko Udala



AJANGIZKO UDALAK 2019KO UZTAILAREN 1EAN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarretuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Gaizka Aspiazu Otazua jauna
Janire Intxausti Juaristi andrea
Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
Ismael Oar- Arteta Undabeitia jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2019ko uztailaren 1ean, arratsaldeko 20:00ean eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko.

Leire Garatxena Larrabe andreak etorri ezin izana justifikatu du.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- 2019KO EKAINAREN 15EKO EZ OHIKO OSOKO UDALAREN ERAKETARAKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

2019ko ekainaren 15ean udalaren eraketarako ospatutako bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- MAIATZAREN 26KO UDAL HAUTESKUNDEEN ONDORIOZ, HAUTETSI DEN EAJ/PNV-KO ORDEZKARIAREN KARGU HARTZEA BEHAR BADA.-

Ajangizko Udala 2019ko ekainaren 15ean ospatutako bilkuran eratu zen zinegotzien gehiengo absolutuak osatuta, Hauteskunde-araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195 artikulua araututakoarekin bat.

Ekitaldi horretara EAJ-PNVko hautetsia den Iñigo Valencia Alacano jauna bertaratu ez zela eta, kargu hartzeko borondatea aurkeztu du, idazkaritzan zinegotzi egiaztatutakoa aurkeztuta.



Ajangizko Udala



Zinegotzi egiaztatutuna eta ziurtagiria bat datozela ikusita, lege-aginduz, konstituzioa beteko dutela hitza eman du, indarrean dagoen legediarekin bat bere kargua hartu eta Udalbatzaren kide bezala bere tokia hartzen du.

3.- UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN BERRI EMATEA.-

2019ko maiatzaren 26an ospatutako Udal hauteskundearen ondoren, 2019ko ekainaren 15ean eratu zen udal berria.

Talde politikoei dagokienez, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Araudiko 23 eta 29 bitarteko artikuluek arautzen dutena kontutan hartuta.

Udala eratu eta bost egunen barruan udal Idazkaritzan Alkateari zuzenduta aurkeztutako idatziak kontutan hartuta.

Toki Erregimena arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21. Artikuluak eta 2568/1986 Errege Dekretuko 41 eta 82.1 artikuluek ematen dizkidaten eskumenetan oinarrituta, Araudi horren 25. artikuluan araututakoa bete asmoz, Alkateak honako talde politikoen eraketari buruzko informazioa ematen dio Osoko Bilkurari:

Ajangizko Udaleko EH BILDU taldea:

- Koldo Carbonell Oihartzabal jauna
- Leire Garatxena Larrabe andrea
- Gaizka Aspiazu Otazua jauna
- Janire Intxausti Juaristi andrea
- Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
- Bozeramalea: Koldo Carbonell Oihartzabal jauna
 - o Ordezkoa: Leire Garatxena Larrabe andrea

Ajangizko Udaleko EAJ-PNV taldea:

- Ismael Oar-Arteta Udabeitia jauna
- Iñigo Valencia Alacano jauna
- Bozeramalea: Iñigo Valencia Alacano jauna
 - o Ordezkoa: Ismael Oar-Arteta Udabeitia jauna

Osoko bilkurak jakintzat jotzen du bere burua.

4.- OHIKO OSOKO BILKURAREN ALDIZKOTASUNA ONARTZEA.-

2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeak ikusita eta 2019ko ekainaren 15ean udal berriaren eraketa osatu zela kontutan hartuta,

Toki Entitatearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Arauko 58 a) eta 78.1 artikulok araututakoa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Ohiko osoko bilkuraren aldizkotasuna onartzea, honako arau hauen arabera:



Ajangizko Udala



- Ohiko bilkurak orokorrean, 2019ko irailetik aurrera ospatuko dira, hiru hilabetero, azken asteazkenean, arratsaldeko 20:00ean.
- Abuztua hilabete ez gaitzat joko da ohiko bilkuren ospakizunari dagokionez.
- Ohiko osoko bilkurarako datak, jaiegun, zubi, oporraldi edo antzerakoekin bat egingo balu, ohiko osoko bilkurak dagokion eguna baino aste bete lehenago edo beranduagoko epean ospatu ahal izango dira.

Bigarren.- Ebazpen honen berri udal zerbitzuei ematea dagozkion ondorioetarako.

5.- UDAL SAILEN ERAKETA.-

Ondoren udalean sortu diren talde-lanen berri ematen da, bakoitzeko arduradunaren izendapenarekin:

- Hirigintza, obrak eta zerbitzuak: Koldo Carbonell, Gaizka Aspiazu eta Ekaitz Lejarzegi
- Kultura, Euskera eta jaiak: Leire Garatxena eta Janire Intxausti
- Gizarte ekintza: Leire Garatxena eta Janire Intxausti

Alkateak batzordeak zabalak izan daitezen espero du, batzorde guztietan talde desberdinen partaidetza bultzatuz. Halaber, herriarentzako garrantzitsuak diren gaietan erabakirik hartu aurretik beste taldearekin (EAJ/PNV) harremanetan gaia aztertzeke asmoa azaltzen du.

6.- INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORREN SORTZE ETA ERAKETA.-

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985ak 127 artikuluan jasotakoa kontutan hartuta, nahitaezkoa da Kontuen Batzorde Berezia osatzea. Batzorde honen eginbeharren artean, Udal Osoko Bilkurak onartu behar dituen kontu guztien (aurrekontukoak nahiz aurrekontuz kanpokoak) azterketa eta txostena egitea da, toki entitateetako kontabilitate arauak jasotakoaren arabera.

Horrez gain, Osoko Bilkurak Kontuen Batzorde Berezia, Ogasun Batzorde informatibo iraunkor modura aritzea ere onartu dezake, udaleko ekonomia eta ogasun gaietarako.

Alkateak beste taldeko zinegotziei Batzorde honetako kide izateko aukera ematen die. Valencia jaunak eskaintza eskertu eta parte izateari uko egiten dio.

Hori horrela, alkatetzak proposatutakoarekin bat, eta EAJ/PNV taldeko zinegotziek egindako eskaintzari ezatza eman ondoren, osoko bilkurak aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Ajangizko Udaleko Kontuen Batzorde Berezia, honako ordezkariak osatuko dute:

- Presidentea: Koldo Carbonell Oihartzabal jauna, Alkatea
- Bokalak:
 - Gaizka Aspiazu Otazua jauna
 - Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna



Ajangizko Udala



- Idazkaria: Udalekoa.

Bigarren.- Udaleko Kontuen Batzorde Berezia, Ogasun Batzorde informatibo iraunkor modura arituko da.

Batzordea hamabostero bilduko da, ostegunetan. Batzar egunak jaiegun, zubi, oporraldi edo antzerakoekin bat egingo balu, batzordea aurreko edo ondorengo bi egunen buruan ospatuko da. Batzordekideen oporraldi garaian ez da bilkurarik ospatuko.

3.- UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEETAN AJANGIZKO UDALEKO ORDEZKARIEN ETA ORDEZKOEN IZENDAPENA.-

Udalazgaindiko erakundeetan Udalak duen partaidetzari dagokionez, honakoak izango dira Ajangizko Udaleko ordezkariak:

- **Urremendirako ordezkaria:**
 - Titularra: Koldo Carbonell Oihartzabal jauna
 - Ordezkoa: Gaizka Aspiazu Otazua jauna
- **Busturialdeko Uren Patzuergoko ordezkaria:**
 - Titularra: Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
 - Ordezkoa: Gaizka Aspiazu Otazua jauna
- **Busturialdeko industrialdeko ordezkaria:**
 - Titularra: Koldo Carbonell Oihartzabal jauna
 - Ordezkoa: Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
- **Behargintza:**
 - Titularra. Janire Intxausti Juaristi andrea
 - Ordezkoa. Leire Garatxena Larrabe
- **UEMA:**
 - Titularra: Leire Garatxena Larrabe andrea
 - Ordezkoa: Janire Intxauti Juaristi andrea
- **Udalbiltza:**
 - Titularra: Gaizka Aspiazu Otazua jauna
 - Ordezkoa: Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
- **Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea:**
 - Titularra: Leire Garatxena Larrabe andrea
 - Ordezkoa: Janire Intxausti Juaristi andrea

8.- UDAL DIRUZAINTZAREN IZENDAPENA.-

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 92 bis artikulok zera arautzen du:



Ajangizko Udala



1. Toki Korporazio guztietan nahitaezko funtzioak dira eta estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta daude:
 - a) Idazkaritza, fede publikoa eta nahitaezko aholkularitza juridikoa.
 - b) Kudeaketa ekonomiko-finantzieroaren eta aurrekontuaren barne kontrol eta fiskalizazioa, baita kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa ere.

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministeritzako, Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzako, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, irailaren 11ko 10/2015 Errege Dekretu-Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 92 bis artikuluan egingandako aldaketa honela interpretatu zuen 2015ean:

«Esta modificación implica que desde la entrada en vigor del Real Decreto-Ley (13 de septiembre de 2015), los funcionarios pertenecientes a la Subescala de Secretaría-intervención tienen atribuidas por igual las funciones de secretaría, comprensivas de la fe pública y el asesoramiento legal preceptivo, de control y la fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria, y de contabilidad, tesorería y recaudación, no pudiendo ser desempeñadas estas funciones por Concejales.

En tanto no exista un desarrollo reglamentario que regule el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional, se considera por este Centro Directivo que el desempeño de funciones de tesorería en municipios de menos de 5.000 habitantes podrá articularse mediante alguna de las siguientes posibilidades:

- *Mediante agrupación de tesorería, que haya sido establecida por la respectiva Comunidad Autónoma;*
- *Mediante un puesto de colaboración, reservado a funcionario con habilitación de carácter nacional;*
- *Mediante la Diputación Provincial o entidades equivalentes o Comunidad Autónoma Uniprovincial que asuma estas funciones a través de sus servicios de asistencia técnica;*
- *Mediante otro funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional perteneciente a otro Municipio, a través de la acumulación de funciones con su puesto habitual.*
- *De forma transitoria, con el fin de garantizar la actuación de la Entidad Local respectiva, en aquellos casos en que no sea posible aplicar ninguno de los criterios anteriormente señalados, y en tanto se articule alguno de ellos, la misma persona podrá desempeñar las funciones de secretaría, intervención y de tesorería.*

En este mismo sentido, los secretarios interinos que actualmente desempeñen los puestos de secretaría, clase tercera en Ayuntamientos y Agrupaciones de Municipios constituidas para tal fin, podrán seguir ejerciendo, igualmente, las funciones de tesorería, como propias de dichos puestos».

Adierazitakoa kontutan hartuta eta Ajangizko udaleko egoera kontutan hartuta, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak eskaintzen duen azken aurkera aplikatuz, Ajangizko Udaleko Diruzain modura, Idazkari-Kontuhartzailea izendatzea proposatzen da.

Bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute proposamena.



Ajangizko Udala



9.- ALKATETZAKO ORDEZKARITZAK IZENDATZEKO DRKRETUEN BERRI EMATEA.-

Alkate Udalburuak, alkate ordeen izendapenari buruzko 2019ko ekainaren 19an emandako 2019/082 dekretuaren berri ematen du:

Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.2 artikuluan arautzen duena kontutan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Alkatea ez dagoenean, kanpoan dagoenean edo gaixo dagoen kasuetan bera ordeztuko duten ondorengo Alkate Ordeak izendatzea:

1. Alkate Ordea: Leire Garatxena Larrabe andrea.
2. Alkate Ordea: Gaizka Aspiazu Otazua jauna.

Bigarren.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki oholean argitaratzea.

Hirugarren.- Interesdunari ebazpen honen berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Bertaratutako zinegotziek jakintzat jotzen dute bere burua.

10.- LAGUNTZAK ETA KALTE-ORDAINEN BURUZKO ORDAINKETAK.-

Dieten onarpenari dagokionez, alkatetzak honakoa proposatzen du:

- **Kilometroak:** 0,29 €/km

Udal taldeei egokituko zaien diru kopuruari dagokionez:

Taldeko: 86,00 €/hileko

Zinegotziko: 42,00 €/hileko

Osoko Bilkuretara joateagatik dieta: 42,00 €/zinegotziko.

Bertaratutako zinegotziek aurkeztutako proposamena aho batez onartu dute.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederlatziak hamar gutxitan eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATE-UDALBURUA
Koldo Carbonell Oihartzabal

BITARTEKO IDAZKARI-
KONTUHARTZAILEA
Saioa Pineda Aranburu